

Garaiko heroia, desgaraiko nobela

Felipe Juaristi

"Kapitalnaren alaba"

Aleksandr Sergelevitx Pushkin

euskaratzailea: Jose Morales Belda

Ibaizabal, 1996

Ez dakit neuk ere zenbat aldiz irakurri ote dudan liburu hau baina dexente irakurri dudala esateko moduan nago. Azken irakurketa, gainera, aurrekoak baino atsegingarriago suertatu zait. Ez dakit nola esan, gero eta gustagarriago egiten zait Pushkinen nobela hau; areago, Pushkinen ipuiak baino gustagarriagoa. Idazlea Errusiak eman duen idazle onenetarikoa dugu, Poeta nazionala bihurtu zuten, ziotenez, oso ondo islatzen zuelako bere bertsoetan "errusiar arima" deitzen den hori. Dena dela, oso garbi ez dagoenez zer diren herri bakoitzaren bihotz-arimak, esan beharko da Pushkinek bere garaiko erretratu kunplitu samarra eman digula guri, haren ondorengo garenoi, eta idazleak erretratua egitean izandako arrakastagatik, badakigu erretratu hura errusiar multzo handi baten gustukoa izan zela. Ez bakarrik irakurleen gustukoa, Pushkinen poemak irakurriak baino entzunak izan baitira, plazatan batez ere, ahots oneko koblakari batek esanda.

Erromantizismoaren barruan sartzen dute Pushkin, eta mugimendu haren ezaugarri batzuk nabarmen-nabarmen ageri dira haren obran. Beste batzuk ez, ordea. Nobela honetan atzean uzten ditu Pushkinek ordura arteko zenbait joera, eta, pauso berriak emateaz batera, bide irekitzen die atzetik etorriko ziren idazleei, ez errusiarrei bakarrik, baita europarrei ere. Nobela honen tajukera nahikoa modernoa da, ez du zer ikusirik garaiko idazleek idazten zutenekin. Esaterako, Barojaren zenbait nobelaren antza handia hartzen diot. Izan ere, Pushkinen honetan, militar baten abenturak kontatzen dizkigu, militar horren gorabeherak dagoen gotorlekua matxinoek hartzen dutenean. Baina funtsean maitasun istorio bat da, samurtasun handiz idatzia. Militarrak dena egingo du maitasuna eskuratzeko, baina maitasunaren gainetik ohorea jarriko du. Azkeneko orrialdeak erabakiorrak dira: emakumeak, bere kasa ibiliz, maite duen militarra salabatzea lortuko du.

Hori da istorioa, eta kontatzeko moduz esan daiteke alferrikako hitzik ez dagoela liburu osoan. Oso zuzena da, barne edo kanpo deskripzioetan ez du denborarik galtzen ia. Pertsonaiak ere ez zaizkio asaldatzen, hau da beren egitekoa betetzen dute, tramaren eskumendean beti. Itzulpenak hori guztia errespetatzen du. Itzultzaileak jakin izan du euskal hitz argitan jartzen Pushkinen argitasuna, hizkuntza menderatzeak eraman dezakeen esjaerazioan erori gabe. Zoragarria da nire iritziz, plazer handiz irakurtzen dena.

El Diario Vasco, 1997-09-13